

# Egia Pausoz Pauso

LAN-SAIOA / SESIÓN DE TRABAJO


Maiatzaren 27 Mayo

18:00 - Egiako Kultur Etxean / Casa de Cultura Egia

Izen emateak / Inscripciones: [udala\\_partaidetza@donostia.eus](mailto:udala_partaidetza@donostia.eus)

Egian oinezkoen espazio atseginak sortzeko ekimena

Iniciativa para crear espacios peatonales de calidad en Egia



Eragileak | Agentes



Parte hartzaileak | Participantes

Ongi etorri eskolara, SOS Arrazakeria, Egiako Azoka Txikia, Egiako Euskara Batzordea, Kalapie, Hegian Dendarien Elkarte, Aitor Ikastola, Maria Reina Ikastetxea, Txoko Berri, Arkitektura Saila UPV-EHU.M etxea, Juntura eta Kalea(n) Bizi.

Egia pausoz pauso ekimenak oinezkoen mugikortasuna bultzatu nahi du auzo atseginago, irisgarriago eta seguruago baten bila.

Apirilaren 12tik 25era Tejeria kalean egindako esperientziarekin lotuta, aurrez, bitartean eta ondoren hainbat iritzi eta balorazio jaso dira galdetegi bidez eta beste hainbat bidetatik. Oraingoan, ideia horiek guztiak modu eraikitzailean partekatzea proposatzen dizuegu, ekimen honen helburuarekin lotuta.

Gainera, EHUko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko ikasleek auzoaren diagnostikoa egin dute eta auzoko mugikortasunari eta oinezkoentzako espazioari buruzko hausnarketa zabaltzen lagun dezakete.

Animatu [Maiatzaren 27an 18:00etan Egiako kultur etxean](#) lan-saioan parte hartzera. Saioaren helburuak ondorengoak izango dira:

- Esperientziaren inguruan aurrez eta ondoren egindako behaketa eta inkestetan jasotakoaren berri ematea eta bildutako informazioa **aurkeztea**
- Bertaratutakoen artean, auzo ikuspegiarekin **ekarpenak egitea**
- Zure auzoaren **komunitatean parte hartzea**

Animatu eta parte hartu pertsonen alde gune publikoa eraldatuz Egia hobetzeko helburua duen ekimen honetan.

Egungo osasun egoera dela eta, kultur etxeko edukiera mugatua izango da. Horregatik, alde aurretik izena eman beharko da saioan parte hartzeko. Izen-emate kopurua edukiera baino handiagoa balitz, beste saio bat egitea edo ekarpenak jasotzeko beste bide batzuk bilatzea baloratuko da.

**Maiatzaren 25a baino lehen eman behar da izena**, honako emailera idatzita: [udala\\_partaidetza@donostia.eus](mailto:udala_partaidetza@donostia.eus)

Egia pausoz pauso es una iniciativa para potenciar la movilidad peatonal, para propiciar un barrio más amable, accesible y seguro para todas y todos.

Celebrada la experiencia en la c/ Tejería del 12 al 25 de abril y recogidos antes, durante y después, muchos datos, opiniones y valoraciones a través de encuestas, observaciones etc. os invitamos a un taller en el que compartir todas estas ideas de manera constructiva para favorecer el objetivo de esta iniciativa.

Además, alumnas y alumnos de la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de la EHU-UPV, han realizado simultáneamente un diagnóstico del barrio y han elaborado distintas propuestas que pueden colaborar a ampliar la reflexión sobre la movilidad y el espacio peatonal del barrio.

Animate y participa el **27 de mayo a las 18.00 en la Casa de cultura de Egia** en una sesión de trabajo con los siguientes objetivos:

- **Conocer** los resultados del análisis de la experiencia y **completarlo** con reflexiones que surjan entre las y los participantes
- **Hacer aportaciones** con una mirada más amplia de barrio
- **Formar parte** de la comunidad de tu barrio

Animate y participa en una iniciativa que busca mejorar Egia a través de la transformación del espacio público a favor de las personas, a favor del peatón.

Debido a la situación sanitaria actual, el aforo estará limitado. Por ello, será necesario inscribirse con antelación para asistir. En caso de recibir un número de inscripciones superior al aforo, se valorará realizar otra sesión o buscar otras vías para recibir aportaciones.

La inscripción se deberá realizar **escribiendo un email antes del 25 de mayo**: [udala\\_partaidetza@donostia.eus](mailto:udala_partaidetza@donostia.eus)